



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko maiatzaren 22a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du egungo estatus politikoa aldatu eta geure politika ekonomiko eta sozialak definitzeko borondatea. Foru Araubideko Batzordeak bazter utzia (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da indarrik gabe utz dezan Zangituko industrialdearen (Altsasu-Urdiain) udalez gairikiko proiektu sektorialaren etendura. Sustapen eta Etxebizitza Batzordeak bazter utzia (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko ea deuseztatuko den egun Donapea IPak hartzen dituen lursailetan hiru ikerketa zentro berri ezartze aldera sinatutako protokolo orokorra, Marisa De Simón Caballero andreak eginga (3. or.).
- Galdera, jakiteko zer aukeraren alde egingen duen Nafarroako Gobernuak Alderdi Popularraren neurriei dagokienez, Maiorga Ramírez Erro jaunak eginga (3. or.).
- Galdera, jakiteko enpleguaren, ekonomiaren eta zerbitzu publikoak mantentzearen arloetan lortu diren emaitza txarrak zeri zor zaizkion, Txentxo Jiménez Hervás jaunak eginga (4. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du egungo estatus politikoa aldatu eta geure politika ekonomiko eta sozialak definitzeko borondatea.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du egungo estatus politikoa aldatu eta geure politika ekonomiko eta sozialak definitzeko borondatea."

Legebiltzarreko Foru Araubideko Batzordeak, 2012ko maiatzaren 18an egindako bileran, erabaki

zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko apirilaren 27ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da indarrrik gabe utz dezan Zangituko industrialdearen (Altsasu-Urdiain) udalez gaindiko proiektu sektorialaren etendura.

SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da indarrrik gabe utz dezan Zangituko industrialdearen (Altsasu-Urdiain) udalez gaindiko proiektu sektorialaren etendura."

Legebiltzarreko Sustapen eta Etxebizitza Batzordeak, 2012ko maiatzaren 17an egindako

bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko maiatzaren 7ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea deuseztatuko den egun Donapea IPak hartzen dituen lursailetan hiru ikerketa zentro berri ezartze aldera sinatutako protokolo orokorra.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko ea deuseztatuko den egun Donapea IPak hartzen dituen lursailetan hiru ikerketa zentro berri ezartze aldera sinatutako protokolo orokorra.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa De Simón Caballerok, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak heldu den maiatzaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Donapea IPlaren lekualdatze proiektuak errefus sozial handia eragin du, baita ikastetxe horretako hezkuntza-erkidegoan ere, zeinak askotan adierazi baitu proiektuaren aurka dagoela, berriki-tan aurkeztu duen "Ikastetxeari eta haren inguruari begira" izeneko txostenean ikusten den bezala.

Nafarroako Gobernuak deuseztatu egingen al du Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Unibertsitateak eta Ikerkuntza Mediko Aplikaturako Fundazioak 2011ko martxoaren 19an sinatutako protokolo orokorra, egun Donapea IPak hartzen dituen lursailetan hiru ikerketa zentro berri ezartzekoa, eta ekidinen al du, hartara, ikastetxearen lekualdatzea?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, jakiteko zer aukeraren alde egingen duen Nafarroako Gobernuak Alderdi Popularraren neurriei dagokienez.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer aukeraren alde egingen duen Nafarroa-

ko Gobernuak Alderdi Popularraren neurriei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Alderdi Popularraren neurriei dagokienez, ondoko zer aukeraren alde egingen du Nafarroako Gobernuak?

- Konstituzio Auzitegian errekurtsorik jarriko al du?

- Aplikatu gabe utziko ditu eta aplikatu ez izanaren aurka Estatuak errekurtsua jarri arte itxoinen du?

- Ez du ezer egingen?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko enpleguaren, ekonomiaren eta zerbitzu publikoak mantentzearen arloetan lortu diren emaitza txarrak zeri zor zaizkion.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko enpleguaren, ekonomiaren eta zerbitzu publikoak mantentzearen arloetan lortu diren emaitza txarrak zeri zor zaizkion.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, maiatzaren 24ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

Zure Gobernuak legegintzaldiko lehen urte honetan enpleguaren, ekonomiaren eta zerbitzu publikoak mantentzearen arloetan lortu dituen emaitza txarrak zeri zor zaizkio zure ustez, abian jarritako neurriek porrot egin izanari ala Espainiako Estatuak bizi duen egoera ekonomikoarekiko mendekotasunari eta ondorioei?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas